



3. ORDENANTZA FISKALA,

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN
GAINEKO ZERGAREN TASA ZEHAZTEKO
ALDERDIRIK NAGUSIENAK ARAUTZEN
DITUENA.

ORDENANZA FISCAL N°3

REGULADORA DE LOS ELEMENTOS
ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS
CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE
VEHICULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordiziako Udalak, uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4 artikulua ematen dion aginpideaz baliatuz –hori baita Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergarena arautzen duena–, ERANSKINEAN datorren koefizientea erantsi eta goian esandako artikuluko aurreneko atalean adierazitako kuota gutxienekoak jarri ditu.

II.- ZERGA-TASAK

2. artikulua.

Lehenbiziko artikuluan esandako koefizientea erantsi eta eranskinean datozen tarifen arabera kobratuko da zerga honena.

III.- ZERGA KUDEATZEA

3. artikulua.

1.- Urteko egunen arabera kitatuko da zerga honena. Ordainketa egiteko, dena den, orri bat izango da ofiziala, eta hura emango die Udalak bai partikularrei eta baita espedienteak izapidetzen jarduten duten gestoriei ere.

2.- Auto-kitapena aurkeztutako unean berean ordaindu behar da zerga.

4. artikulua.

Zorra ordaindutakoan Udalak ematen duen ordainagiri behin-betikoa izango da zerga honena kitatu izana erakusteko balioko duen agiria.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1º.

El Ayuntamiento de Ordizia, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 4.4. de la Norma Foral 14/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, fija las cuotas mínimas establecidas en el apartado 1 del citado artículo mediante la aplicación del coeficiente que se expresa en el ANEXO.

II. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 2º.

En aplicación del coeficiente a que se refiere el artículo anterior, este Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas que se relaciona en el expresado Anexo.

III. GESTIÓN DEL IMPUESTO

Artículo 3º.

1.- Este Impuesto se exigirá en régimen de autoliquidación en el modelo que al efecto se facilitará por la Administración municipal a los sujetos pasivos de este Impuesto y a las Gestorías que tramiten los correspondientes expedientes.

2.- El pago del Impuesto se efectuará en el momento de la presentación de la autoliquidación.

Artículo 4º.

El documento acreditativo del pago de este Impuesto, será el recibo definitivo que expida la Administración municipal en el momento de liberar la deuda.



5. artikulua.

1.- Zerga honena ordaindu izana erakusteko agiria eraman ezean Trafiko Zuzendaritza ez da behean datozen espedienteak egiten hasten.

a) Automobila bidean ibiltzeko moduan dagoela adierazteko egiaztagiria.

b) Automobilari baja ematea behin-betiko.

c) Horiek aldatzea, baldin eta zerga honetako sailkapena aldatzen bada.

d) Automobila eskuz aldatzea.

e) Ibilgailua ibiltzeko baimenean adierazitako pertsonaren helbidea aldatzea.

2.- Ordaindu beharreko kuotak ordainduta izana erakusteko agiria derrigorrez eraman behar da, orobat, Trafiko Zuzendaritza automobilari matrikula jartzeko espedienteak egiten hasiko bada.

IV.- KUOTAK ITZULTZEA.

6. artikulua.

Urtea bukatu baino lehen automobilari behin-betiko baja emanaz gero, edo behin-behingo kitapena egitekoan behar baino gehiago ordainduz gero, Udalak itzuli egingo dio aldea zergadunari; baina, behin-betiko baja emateko paperak edota matrikula jartzeko paperak ekarritakoan.

V.- HOBARIAK

7. artikulua

Ibilgailu historikoentzako %100eko hobaria. Ibilgailu historikotzat hartuko dira uztailearen ibilgailu historikoen araudia onartu zuen 14eko 1247/1995 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak, ibilgailuen azterketa teknikoa arautzen duen urriaren 23ko 920/2017 Errege Dekretuak egin zizkion moldaketak aintzat hartuta beti ere. Ezaugarri hauek guztiak betetzen dituzten ibilgailuak hartuko dira historikotzat:

Artículo 5º.

1.- La presentación del certificado acreditativo de estar al corriente del pago de la deuda tributaria de este Impuesto, es requisito indispensable para iniciar en la Jefatura de Tráfico la solicitud de tramitación de los expedientes sobre:

a) La certificación de aptitud del vehículo para circular.

b) La baja definitiva del vehículo.

c) La reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto.

d) La transferencia del vehículo.

e) El cambio de domicilio del sujeto pasivo del que figure en el permiso de circulación del vehículo.

2.- La presentación del recibo acreditativo del pago de las cuotas corrientes, será requisito indispensable para iniciar el expediente de matriculación en la Jefatura de Tráfico de los vehículos sujetos al impuesto que requieran tal requisito.

IV. DEVOLUCION DE CUOTAS.

Artículo 6º.

Las cuotas proporcionales que resulten a favor del sujeto pasivo, en el supuesto de baja definitiva del vehículo, así como los excesos abonados en su caso en la liquidación provisional, serán devueltos a los sujetos pasivos del Impuesto en el momento de la presentación de la documentación relativa a la baja definitiva y a la matriculación del vehículo.

V. EXENCIONES Y BONIFICACIONES.

Artículo 7º.

Bonificación del 100% para los vehículos históricos. Se considerarán vehículos históricos los que cumplan los requisitos establecidos en el Real Decreto 1247/1995, de 14 de julio, por el que se aprueba el reglamento de vehículos históricos, y que fue modificado por el Real Decreto 920/2017, de 23 de octubre, por el que se regula la inspección técnica de vehículos. Se considerarán vehículos históricos los que reúnan todas las condiciones siguientes:



- a) Gutxienez 30 urteko antzinatasuna izatea fabrikatu eta lehendabiziko matrikulatu zenetik.
- b) Ibilgailuaren tipo espezifikoa jadanik ez ekoiztea.
- c) Jatorrizko egoeran mantentzea eta funtsezko aldaketarik ez jasatea bere ezaugarri tekniko edo oinarrizko osagaiei dagokionez, halanola, motorra, balazta, direkzioa, esekidura edo karrozeria.

Kotxe edo moto elektrikoak %95eko hobaria jasoko dute, kotxe hibridoek %50eko hobaria eta Gasakin dabiltzaten autoei %30eko hobaria.

Salbuetsitak egongo dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira.

Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago eman zaizkienean

b') Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gorpil aulkia eramateko

- a) Fue fabricado o matriculado por primera vez con una anterioridad de 30 años, como mínimo.
- b) Su tipo específico ha dejado de producirse.
- c) Está en su estado original y no ha sido sometido a ningún cambio fundamental en cuanto a sus características técnicas o componentes principales, como el motor, los frenos, la dirección, la suspensión o la carrocería.

Zozarán de una bonificación del 95% los coches y motos eléctricos, de un 50% los vehículos híbridos y de un 30% los vehículos que funcionen con gas.

Estarán exentos los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo.

Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

a') Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B ó C del baremo que figura como Anexo 3 del Real Decreto 1.971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G ó H del citado baremo.

b') Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100.

A las personas incluidas en las letras a) y b) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1.971/1999, no les será de aplicación el límite de 14



egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

Desgaitasuna izateagatik salbuespenaren gozamena eskaera egin eta hurrengo urtetik aurrera hasiko da, kontuan hartuta sortzapena urtarrilaren 1ean gertatzen dela.

VI.- AZKENEKO ERABAKIA.

Ordenantza fiskal hau eta bere eranskina 2020ko urtarrilaren lehenetik aurrera indarrean izango dira, harik eta arauak agindutakoa errespetatuz aldatzea edo kentzea erabaki arte.

caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

Quedarán también exentos del impuesto los vehículos cuyos titulares acrediten que tienen a su cargo, por razón de patria potestad, tutela o curatela, a alguna persona con un grado de minusvalía igual o superior al 65%. De ser titulares de más de un vehículo, la exención sólo se aplicará a uno.

El disfrute de la exención por discapacidad comenzará a partir del año siguiente al de la solicitud, habida cuenta de que el devengo se produce el 1 de enero.

VI. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza Fiscal con su Anexo entrará en vigor el 1 de enero del 2020, continuando aplicándose en tanto no se acuerde su modificación o derogación.



ERANSKINA / ANEXO

TARIFA

<u>Potentzia eta ibilgailu mota</u> <u>Potencia y clase de vehículo</u>	Gutxi gora-beherako koefizientea Coeficiente aprox	Kuota Cuota
A) <u>TURISMOAK / TURISMOS:</u>		
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak De menos de 9 c. fiscales	1,60	29,48
9 zaldi fiskaletik 11,99ra bitartekoak De 9 hasta 11,99 c. fiscales	2,23	81,80
12 zaldi fiskaletik 13,99ra bitartekoak De 12 hasta 13,99 c. fiscales	2,46	150,66
14 zaldi fiskaletik 15,99ra bitartekoa De 14 hasta 15,99 c. fiscales	2,41	206,30
16 zaldi fiskaletik 19,99ra bitartekoa De 16 hasta 19,99 c. fiscales	2,51	277,04
20 zaldi fiskal eta gehiagokoak De 20 y más c. fiscales.	2,79	376,79
B) <u>AUTOBUSAK / AUTOBUSES:</u>		
21 toki baino gutxiagokoak De menos de 21 plazas	2,42	200,97
21etik 50era bitartekoak De 21 a 50 plazas	2,42	286,22
50 baino gehiagokoak De más de 50 plazas	2,42	357,79
C) <u>KAMIOIAK / CAMIONES:</u>		
1000kg. baino gutxiagoko zama eramateko modukoak. De menos de 1.000 kg. de carga útil	2,42	102,01
1.000tik 2.999 kg.ra bitartekoak De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil	2,42	200,97
2.999 baino gehiagotik 9.999 kg.ra bitartekoak..... De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil	2,42	286,22
9.999 kg. baino gehiagokoak De más de 9.999 Kg. de carga útil	2,42	357,79
D) <u>TRAKTOREAK / TRACTORES:</u>		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak De menos de 16 c.fiscales	2,32	40,96
16 zaldi fiskaletik 25era bitartekoak De 16 a 25 c. fiscales	2,32	64,40
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak De más de 25 c. fiscales	2,32	193,16
E) <u>ATOIAK ETA ERDIATOIAK, TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK GARRAIATUAK/ REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA:</u>		



750 tik 1.000 kg.ra baino gutxiagoko zama eramateko modukoak.....	2,42	42,63
De 750 a 1.000 Kg. de carga útil.		
1.000 baino gehiagotik 2.999 kg.ra bitartekoak.....	2,42	67,01
De más de 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil		
2.999 kg. baino gehiagokoak	2,42	200,97
De más de 2.999 Kg. de carga útil		
F) BESTE ERA BATEKO IBILGAILUAK/ OTROS VEHÍCULOS:		
Ziklototoreak		
Ciclomotores	2,42	10,89
Motoak, 125 c.c. bitartekoak		
Motocicletas hasta 125 c.c	2,42	10,89
125 c.c. baino gehiagotik 250era bitartekoak		
Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c	2,44	18,81
250 c.c. baino gehiagotik 500era bitartekoak		
Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c	2,51	38,72
500 c.c. baino gehiagotik 1.000era bitartekoak ...		
Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c.	2,60	80,30
1.000 c.c. baino gehiagokoak		
Motocicletas de más de 1.000 c.c.	2,71	167,09

ALKATEA / EL ALCALDE,

IDAZKARIA / LA SECRETARIA